

OROIMENAREN EGUNA 2022.eko AZAROAK 10

Banaka eta taldean egiteko ariketa

Aurten Oroimenaren Eguna ospatzeko, asmo politikoko terrorismo eta indarkeriaren eraginez gure artean hil dabazan pertsona guztien artean, batez be emakumeak gogoratzea proposatzen deusku Bake eta Adiskidetzarako batzordeak.

Maite Torrano (bere hilketaren 35. urteurrena da aurton) erreferentziatzat hartuta, bizia bidegabe eta ankerkeriaz moztu eutsen emakume guztiak eta, euren bitartez, gure herrian jasan dogun asmo politikoko indarkeriaren biktima guztiak, gogoratu (gogora eta bihotzera ekarri) gura doguz.

1. Maite Torrano Franciaren aipamena irakurriko dot eta heriotza horren barriak niregan sortu ebazan zirrarak, sentimentuak, jarrerak, erantzunak gogora ekarriko dodaz. Bere senide eta adiskideak esperimatu ebezan sentimentuakaz (atsekabea, haserrea, bihozmina, tristura, ezintasuna...) bat giten saiatuko naz.

MARÍA TERESA TORRANO FRANCIA

Atentatuaren eguna: 1987/04/25.

Heriotzaren eguna: 1987/04/28.

Adina: 37 urte.

Jaioterria: Portugalete.

Bizilekua: Portugalete.

Ogibidea, kargua, beste batzuk: PSEko militantea 1977tik, hainbat bider parte hartu izan eban begirale lez PSE-PSOEK antolatzen ebazan udako kanpamentuetan.

Egileak: Herriko zazpi gazte, euretako bi adin txikikoak. Poliziak 'Mendeku' taldeari atxikita egotea leporatu eutsen. 'Mendeku' taldeak hilaren 19an ezeztatu eban salaketa. José María Calleja eta Ignacio Sánchez-Cuencak «autonomoen lekuko taldetzat» jo eben *La derrota de ETA* dalakoan, «ekintza terroristen oso antzeko izanda, erakunde jakin baten barruan ez dagozan taldeek egindako ekintzak» dirala azalduz.

Heriotzaren lekua: Gurutzetako ospitalea (Barakaldo), atentatua gertatu eta hiru egunera, larri zaurituta, bere gorputzaren erdia hirugarren mailako erredurakaz ebalako.

Jardunbidea: Atentatua *molotov* koktelakaz PSE-PSOEn Portugaleteko 'Casa del Pueblo' egoitzaren aurka, hamabost lagun inguru barruan egoala.

Datu gehiago: Félix Peña Mazagatos be hil zan. Jesús Ramos PSE-PESOEn lekuko taldeko idazkari eta María Teresaren senarra zauritu egin zan emaztearen erropen sugarrak itzaltzen saiatzean. María Teresa Olalderi, María Jesús García del Valleri eta José Luis Villanuevari ebakuntza kirurgikoa egin eutsen eta beste lau lagunek zauri larriak jasan ebezan. Familiak Maite Torrano Fundazioa sortu eban aurrerago.

Iturria: *Euskal kasuan izandako bitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri*. Portugalete 1960-2010 (2. edizioa), Eusko Jaurjaritza-Gobierno Vasco.

2. Geldialdia egin eta oraintsu jasan izan dogun asmo politikoko eta terrorismoko atentatuetan Bizkaian heriotza bortitza jasan daben emakumeak (edo beste leku batzuetan hil dabezan emakume bizkaitarrak) gogora ekarriko dodaz (izenak, lekuak, inguruabarrak...) Ondorengo zerrendara sartu eta datu gehiago eskuratzeko aukera dot: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/udal-erretratuak/>

Gogoratu beharreko emakume biktimen zerrenda

ETAk (eta antzeko taldeek) eragindakoak:

- 1982.eko martxoaren 22a: **Cristina Mónica Illarramendi Ricci** (ezkongabea, seme-alaba barik) Sestaon.
- 1083.eko maiatzaren 4a: **María Dolores Ledo García** (25 urte, ezkondua, haurdunaldi aurreratuan) Bilbon.
- 1987.eko otsailaren 19a: **María Luisa Sánchez Ortega** (60 urte, ezkondua, seme-alaba biren ama) Bilbon.
- 1987.eko apirilaren 28a: **María Teresa Torrano Francia** (37 urte, ezkondua eta seme-alaba biren ama) Portugaleten.
- 2001eko azaroaren 23a: **Ana Isabel Arostegi Lejarreta** (34 urte, ezkondua eta hiru seme-alabaren ama, Mungia) Beasainen (Gipuzkoa).

Kristo Erregeren Gerrillariak taldeak eraginda:

- 1976.eko uztailaren 9a: **Norma Menchaca Gonzalo** (44 urte, ezkondua eta hiru seme-alabaren ama) Santurtzin.

GAEk (Grupos Armados Españoles) eraginda:

- 1980.eko urtarrilaren 9a: **Ane Tere Barrueta Alvarez** (19 urte, ezkongabea) Loiun.
- 1980.eko urtarrilaren 20a: **María Paz Ariño Baron** (38 urte, ezkondua, seme-alaba biren ama) Alonsotegin.

Triple Ak (Alianza Apostólica Anticomunista):

- 1980.eko uztailaren 23a: **Maria Concepcion Contreras Gabarri** (17 urte, haurdunaldi aurreratuan) Bilbon.

BVEk (Batallón Vasco Español) eraginda:

- 1980.eko otsailaren 2a: **Yolanda González Martín** (19 urte, ezkongabea, bilbotarra) Madrilan.

Segurtasun-indarrek eraginda:

- 1975.eko maiatzaren 14a: **Blanca Salegi Allende** (42 urte, ezkondua eta seme-alaba barik) Gernikan.

3. Gure herrian jasandako terrorismoaren eta asmo politikoko indarkeriaren biktima diran emakumeen inguruabarrean agertu daitekezan askotariko elementuak eta emakume biktimei lotutako beste hainbat kontu zehaztuko dot eta horreen inguruan hausnartu.

Esate baterako:

- Asmo politikoko indarkeriaren eta terrorismoaren eraginez hil dabean gizonen kopuruagaz alderatuz, emakumeena askoz txikiagoa da. Horren arrazoiak.
- Heriotza horreek eragiten daben zurztasun zirrargarria (zer gertatzen da handik aurrera euren seme eta alabakaz?), edo moztutako beste bizia hildako haurdunen kasuan.
- Askotan, ezin onartuzko eran, zehar-kaltetzat hartzen dira («bertan egoan, zorte txarra»; «bera ez zan helburua, bere senarra baino» ...) edo euren zoritxarraren erruduntzat («okerreko gizonagaz ezkondu zan», «zeini bururatzen jako *txakur* baten bikotekide izatea»...), bidegabekeria gehituz edo zurituz.
- Horreetako batzuek gaineratik eta beren-beregi bestelako eraso be jasan eten, emakume izateagaitik bakarrik (tratu txar sexuala, bortxaketa...).
- Terrorismoaren kasuan, emakume gehienak «bigarren mailako» biktima dira (hildako gizonezko biktimeen emazteak, amak, alabak) ... Gero, eurak izan dira bake eta bizikidetzaren zuzenaren aldeko lanaren protagonista.
- ...

- Gaur egun, gure artean, giza eskubideen ze urraketa jasaten dabe emakumeek? Une honetan, ondorengo indarkeria honeek jasaten dabezan emakumeak gogora ekarriko doguz:
 - Genero-indarkeria
 - Sexu-esplotazioa
 - Aginte, kontzientzia edo sexu gehiegikeriak Elizan...
- ...

4. Jainkoaren Hitza (Za 7, 8-12a. 14b) arretaz irakurri eta hausnartuko dot

«Jaunak mezu hau be emon eutsan Zakariasi: "Hauxe dino Jaun ahalguztidunak: Epaitu eizue zuzentasunez, izan on eta errukitsu; ez zapaldu alargun, umezurtz, arrotz eta errukarriak; ez daiala inork lagun hurkoaren aurka kalterik asmatzen jardun". Ostera, ez eben jaramonik egin; bizkarra emon eutsen Jaunari, entzungor egin haren hitzari. Gogortu egin eben euren bihotza, Jaun ahalguztidunak, bere espirituaz, antzinako profeten bidez emoten eutsezan irakaspen eta hitzak ez entzuteko. [...] Hara lur bikaina lur gorri bihurtua!».

5. Otoitz egingo deusat Jainko Aitari indarkeriaren biktima guztien eta batez be emakume biktimen alde.